

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2574

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 5ekoa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, «Gamarra-Villarreal 1» 30 kV-ko linea berritzeko eta «Gamarra-Villarreal 2» linea berria 1215 euskarriaren (Araba) eta 4659 TAE Otxandio (Bizkaia) transformazio-azpiestazio murriztailearen artean egiteko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren txostena egiteko dena. Proiektua i-DE, Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresak sustatu du.

AURREKARIAK

2023ko otsailaren 13an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Arabako Industriako Lurralde Ordezkaritzak «Gamarra-Villarreal 1» 30 kV-ko linea berritzeko eta «Gamarra-Villarreal 2» linea berria 1215 euskarriaren (Araba) eta 4659 TAE Otxandio (Bizkaia) transformazio-azpiestazio murriztailearen artean egiteko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuari ekiteko eskaera bete zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren aurrean. Proiektua i-DE, Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresak sustatu zuen. Eskaera Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutakoaren arabera egin da, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 45. artikulua eta hurrengoek arautzen duten proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuko prozeduraren esparruan.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 79. artikulua betez, kontsulta-izapidea abiarazi zuen 2023ko otsailaren 17an, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko. Kontsulta-izapidea egiteko legez ezarritako epea bukatuta, zenbait erakunderen txostenak jaso dira, eta emaitzak espedientean daude jasota. Era berean, organo substantiboari jakinarazi zitzaion hasiera eman zitzaizela izapideari.

Halaber, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesdun orok ingurumenaren arloan egoki jotzen zituen oharrak egin ahal izateko.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organok baduela ingurumen-inpaktuaren txostena egiteko behar beste judizio-elementu, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 79. artikuluari jarraikiz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluari jarraikiz, ingurumen-ebaluazioko prozeduraren mende jarriko dira, nahitaez, ingurumenean eragin esanguratsuak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuak, eta horien aldaketak eta berrikuspenak, ingurumena babesteko maila handi bat bermatzeko eta garapen jasangarria sustatzeko.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76.2 artikuluan xedatutako aplikatuz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egingo zaie legearen II.E eranskinean biltzen diren proiektu publiko zein pribatuei.

Ebazpen honen xede den proiektua aipatutako II.E eranskinean dago jasota; izan ere, dagoeneko gauzatuta dagoen proiektu baten aldaketa da, eta naturagune babestuei edo natura-ondarearen kontserbazioaren arloko babes-erregimen bat duten guneei eragin diezaike.

Proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren espedienteko dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertu ondoren, eta kontuan hartuta proiektuaren ingurumen-dokumentua zuzena dela eta indarreko araudian ezarritako alderdiekin bat datorrela, ingurumen-inpaktuaren txosten hau egin du Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak, bera baita horretarako eskumena duen organoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan xedatutakoaren arabera. Txosten honetan, proiektuak ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzakeen edo ez aztertzen da, eta, ondorioz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duen edota, bestela, zer baldintzatan garatu behar den proiektua, ingurumena behar bezala babesteko.

Xedapen hauek hartu dira kontuan: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Gamarra-Villarreal 1» 30 kV-ko linea eta «Gamarra-Villarreal 2» linea berria 1215 euskarriaren (Araba) eta 4659 TAE Otxandio (Bizkaia) transformazio-azpiestazio murriztailearen artean berritzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren txostena egitea. Proiektua i-DE, Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresak sustatu du, eta ezaugarri hauek ditu:

A) Proiektuaren xedea da «Gamarra-Villarreal 1» linea elektrikoa berritzea eta «Gamarra-Villarreal 2» zirkuitu berria gehitzea.

B) Ebazpen honen bidez, «Gamarra-Villarreal 1» 30 kV-ko linea berritzeko eta «Gamarra-Villarreal 2» linea berria 1215 euskarriaren (Araba) eta 4659 TAE Otxandio (Bizkaia) transformazio-azpiestazio murriztailearen artean egiteko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren txostena ematen da, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.F eranskinean ezarritako irizpideen bat etorritz:

1.– Proiektuaren ezaugarriak.

Proiektua «Gamarra-Villarreal 1» linea elektrikoa berritzeko obrak zehaztean datza. Berritu beharreko lineak 7.814 m-ko luzera du, guztira. Honakoa planteatzen da: dauden 47 euskarrietatik 12 ordezte; zirkuitu berri bat sartzea, «Gamarra-Villarreal 2» delakoa; eta «Gamarra-Villarreal 1» linearen aireko tartean eroalea erabat berritzea. Linearen aldaketak Aramaio eta Legutio (Araba) eta Otxandio (Bizkaia) udalerriei eragiten die. Lineak airetik zein lurpetik doazen zatiak ditu.

Airetik doan zatia 1215 euskarrian hasten da, eta 1260 euskarrian bukatzen da. Hamabi euskarri berri instalatuko dituzte (1216N, 1218N, 1219N, 1228N, 1231N, 1234N, 1239N, 1243N, 1249N, 1251N, 1252N eta 1258N) daudenen orde. Horiek eraitsi egingo dira, eta LA-180 motako eroale berria jarriko da 1215 eta 1260 euskarrien arteko bakoetan.

Euskarri berriak trazaduraren erdiko ardatzean jarriko dira, zaharrak ordeztuz, haietatik hurbil.

1260 euskarritik aurrera, airetik lurpera igarotzen da. Lurpeko zati hori 97 m luze da.

Halaber, linearen aireko zortasuna handitzea aurreikusten da, otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretua aplikatuta, goi-tentsioko instalazio elektrikoen baldintza teknikoei eta segurtasun-bermeei eta haien jarraibide tekniko osagarriari buruzko (ITC-LAT, 01etik 09ra artekoa) Erregelamendua onartzen duena.

Obrak eragingo dituen lur-mugimenduak oso mugatuak dira: 12 euskarri berrien zimenduak egitera mugatzen dira, daudenak ordeztuko. Sarbide berriak ere minimoak izango dira, kontuan hartuta dauden bideak hurbil daudela eta lehendik dauden bideetatik urrun geratzen diren euskarrietarako linea azpira doan sarbidea dagoela.

Sustatzaileak igorritako dokumentazioaren arabera, ez da beharrezkoa obrarako eremu lagungarririk okupatzea makineria-parkea ezartzeko, ez eta materialak biltzekorik ere. Materialak alokatutako biltegietan gordetzen dira, behin betiko lekura eramaten dituzten arte. Euskarrien ingurunean eta sarbideen adar batzuetan soilik behar dira lanerako zelaiak.

2.– Proiektuaren kokalekua.

Proiektua Zadorra Unitate Hidrologikoaren barruan kokatzen da, Ebroko demarkazio hidrografikoan. Trazadura Legutioko hego-ekialdetik abiatzen da, eta Otxandioko azpiestazioraino doa, Urrunagako urtegiaren ekialdetik igaroz. 1249N eta 1251N euskarrien artean, linea Bizkaian sartzen da, eta lurralde historiko horretatik jarraitzen du trazaduraren amaieraraino.

Linea elektrikoa 3 lekutan igarotzen da ES2120011 «Zadorraren sistemako urtegiak» KBEatik. Lehenengo zatia 1300 eta 1228N euskarrien artean dago, eta 101 metro linealeko distantzia du; bigarrena, 1233 eta 1234N euskarrien artean, eta 121 metro linealeko distantzia du; eta hirugarrena, 178 metroko luzerarekin, 1251N eta 1252N euskarrien artean.

Linearen euskarri bat bera ere ez da KBEaren barruan geratzen, haren gaineratik igarotzen da hiru tarte horietan. 1216Ntik 1217ra eta 1250etik 1251ra bitarteko euskarriak, tarte horien artean daudenak barne, KBEaren babes-eremu periferikoaren barruan daude.

Trazaduraren zatirik handiena pagadi azidofiloaren eta baso-landaketen, sastraken, baratzeen eta fruta-arbolen gaineratik igarotzen da. Linearen eremuan, Batasunaren intereseko hainbat habitat daude:

- 9120 pagadi azidofilo atlantikoak, *Ilex* eta, batzuetan, *Taxus* espezieen oihanpeekin.
- 9230 harizti galego-portugesak: *Quercus robur* eta *Quercus pyrenaica*.
- 6510 altitude baxuko sega-belardi elkorak.
- 91E0* haltzadiak eta lizardiak.
- 6210* belardi lehor erdi-naturalak eta kare-substratuetako sastraka-faziesak (*Festuco-Brometalia*) (orkidea garrantzitsuko lekuak).
- 4030 txilardi lehor europarrak.
- 3170* denboraldiko urmael mediterraneoak.

Trazadura igaraba europarraren (*Lutra lutra*) kudeaketa-planetan sartutako eremuetatik hurbil igarotzen da Arabako lurralde historikoan, eta bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) eremuetatik hurbil Arabako eta Bizkaiko lurralde historikoetan (880/2004 Foru Agindua, urriaren 27koa, Arabako Lurralde Historikoan Igarabaren (*Lutra*, Linnaeus, 1758) Kudeaketa Plana onartzen duena). ALHAO, 2004-11-24.

322/2003 Foru Agindua, azaroaren 7koa, Arabako Lurralde Historikoan *Mustela lutreola* Bisoi Europarra Kudeatzeko Plana onartzen duena. ALHAO, 2003-12-05.

Foru Aldundiaren ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretua. Horren bidez, Bisoi Europarraren (*Mustela lutreola*, Linnaeus, 1761) Kudeaketa Plana onetsi zen Bizkaiko Lurralde Historikoan, galzorian dagoen espeziea baita eta hura babesteko neurri bereziak behar baititu (2006ko uztailaren 6ko BAO).

Halaber, abifaunak aireko goi-tentsioko linea elektrikoekin talka ez egiteko eta ez elektrokutatzeke babes-eremuak dira (Zadorrako urtegiak), Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan zehaztutakoa betez. Agindu horren bidez, hegazti-espezie mehatxatuen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatu ziren, eta abifaunaren babes-eremuak –non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatzeke edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira– argitaratu ziren.

Arriskuei dagokionez, linea elektrikoa uholde-arriskuko eremuetatik kanpo dago trazaduraren zatirik handiengan, Urkiola ibaiaren ibilguari lotutako zati batean izan ezik, Otxandioko herrigunearen inguruan, non uholde-arriskua dagoen.

3.– Inpaktu potentzialaren ezaugarriak.

Proiektuari lotutako inpaktu nagusiak obraren fasean sortuko dira, eta babes-eremua handitzearekin lotuta daude; zuhaitziak soilduko dira (mozketak eta/edo inausketak) 56.423 m²-ko azaleran.

ES2120011 «Zadorrako sistemako urtegiak» KBEaren gaineko eraginari dagokionez, lineak 401 m linealeko luzeran zeharkatzen du eremua. Ingurumen-dokumentuaren arabera, inausketak edo mozketak 1.075,67 m²-ko pagadiari eta 249,60 m²-ko hariztiari eragiten die, hau da, baso horiek KBEan duten azalera osoaren % 1,78 eta % 0,11, hurrenez hurren. Eremu osoan dagoen zuhaixka-geruza errespetatuko da, eta egin beharreko mozketak bakanak eta ez-estentsiboak izango dira, lehentasuna inausketa selektiboek emango zaiela.

Gunearen izendapena eragin zuten espezie garrantzitsuek pairatu dezaketen ondorio nagusia da pertsonen eta makinen joan-etorria. Uretako habitatengan eragina izateari dagokionez, istripuz gertatutako inpaktuak eta gertatzeko probabilitate txikia dutenak baino ez dira kontuan hartzen; adibidez, KBEtik gertu zirkulatzen duten makinen isuriak.

Beste ondorio posible bat uren uhertasuna handitzea litzateke, euskarri berriak jartzeko eta urtegiko ur-laminatik gertu daudenak desmuntatzeko egin behar diren lur-mugimenduen ondorioz. Horrela, 1234N euskarria urtegitik 55 metrora dago, eta bertara isurtzen du zuzenean; 1239N euskarria, urtegiara isurtzen duen ibarbide batetik 16 metrora dago. Afekzio-eremua 3 m² ingurukoa izango da euskarriak handienerako, eta, ondorioz, lur-mugimendu gutxi egingo dira. Hori dela-eta, neurri zuzentzaile egokiak hartzen badira, pentsatzen da KBEan ez dela eragin nabarmenik izango.

Horrenbestez, ingurumen-dokumentuak ondorioztatzen du proiektuak ez diola nabarmen eragiten funtsezko elementu bakar bati ere, eta, beraz, ondorioztatzen da Natura 2000 Sarearen gaineko eragina ez dela esanguratsua.

1248N euskarri berria eta lurpeko kanalizazioko linea uholde-arriskuko eremu batean daude. Arriskua dela-eta, lanak uholderik aurreikusten ez denean egin beharko dira.

KBEaren eremutik kanpo, ingurumen-dokumentuaren arabera, babes-eremuan zuhaitzia soilduko da (mozketak eta/edo inausketak) 56.423 m²-tan. Azalera horren zatirik handiena pagadia da

(Batasunaren intereseko habitata, 9120), eta, ondoren, koniferoen, hariztien eta ameztien baso-
tzeak daude (9230 habitata).

Lurzorua okupatzeagatik edo landare-estalkia kentzeagatik faunaren habitatak zuzenean kentzea bereziki esanguratsua izan daiteke obra-fasean, eta haren ondorioak zuzenean lotuta daude landarediaren gaineko inpaktuek eta lurzoruaren galerak duten garrantziarekin, bai eta proiektuaren eremuan dagoen fauna-ugaritasunarekin eta -aberastasunarekin ere.

Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariaren 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenak gaur egun dagoen lineari eragiten dio. Ebazpen horren bidez, goi-tentsioko linea elektrikoetako hegaztien elektrokuzioaren eta talken ondoriozko heriotzak murrizteko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuaren 6. eta 7. artikuluetan ezarritako arau teknikoekin bat ez datozen aireko goi-tentsioko linea elektrikoak zehazten dira. Proiektuan, abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuan jasotako abifauna babesteko neurriak betetzea aurreikusten da.

Ordeztko den linea desmuntatzean hondakin metaliko ugari sortuko dira; zehazki, 12 euskarri-unitate eta 7.814 metro luze den eroanbidea desmuntatuz datozenak. Hondakin horiek kudeatzaile baimenduek kudeatuko dituzte, motaren arabera. Era berean, arriskutsuak ez diren beste hondakin gutxi batzuk (kartoia, plastikoa, metalak, egurra, hormigoi-hondarrak) eta arriskutsuak diren beste batzuk (trapu kutsatuak, aerosolak, etab.) sortuko dira, zeinak behar bezala kudeatu beharko baitira.

Bestalde, jarduketan ondorioz, aldi baterako eta leku jakinetan, gutxitu egingo da faunaren eta gizakien habitaten kalitatea (zarata handitzea, hautsa, bibrazioak eta abar), lurzoruak edo urak kutsatu ahal izango dira lurra mugitzean sortutako istripu gertatutako isurtzeen edo jariatzeen ondorioz, eta hondakinak sortu ahal izango dira lehendik zeuden euskarriak kentzeagatik eta linearen zortasun- eta babes-eremua mantentzeko ebaketa- eta/edo inausketa-lanengatik.

Proiektua linea berritzean datza, trazadura aldatu gabe, eta jarduketa guztiak egungo linearen trazaduran egingo dira. Aurreikusitako euskarri berriak eraikitzeak azalera baliokide baten desfekzioa dakar, dauden euskarriak desmuntatzen direlako, eta, beraz, ez da inpaktu berririk sortuko paisaian linea martxan dagoen bitartean.

Eremuaren eta egin nahi den jardueraren ezaugarriak kontuan hartuta, eta aintzat hartuta bai sustatzaileak proposatutako neurri babesle eta zuzentzaileak bai ingurumen-inpaktuaren txosten honetan bertan agindutakoak, ez da aurreikusten proiektuak ingurunearen aipatutako alderdietan inolako eragin negatiborik izango duenik.

Bigarrena.– Ebazpen honetan, honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek ezartzen dira, proiektuak ez dezan ondorio kaltegarri nabarmenik izan ingurumenean eta «Gamarra-Villarreal 1» 30 kV-ko linea berritzeko eta «Gamarra-Villarreal 2» linea berria 1215 euskarriaren (Araba) eta 4659 TAE Otxandio (Bizkaia) transformazio-azpiestazio murriztailearen artean egiteko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazioa egiteko beharrik ez dadin egon, betiere, ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak betetzen badira.

Neurri babesle eta zuzentzaileak gauzatzean, honako hauetan ezarritakoa bete beharko da: indarrean dagoen araudian xedatutakoa, hurrengo apartatuetan adierazitakoa, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, sustatzaileak organo substantiboaren bidez Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren aurrean aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoa.

Bestalde, neurriak eta kontrolerako langile kopurua behar adinakoak izango dira ingurumen-dokumentuan finkatutako kalitate-helburuak eta ingurumen-txosten honetan ezarritakoak bermatzeko.

Neurri horiek guztiak obrak kontratatzeke baldintza-agirietan sartu beharko dira, eta baldintza horiek betetzen direla bermatuko duen aurrekontua ere izan beharko dute. Era berean, jardunbide egokiak aplikatuko dira obretan.

Honako apartatu hauetan adierazitako neurriak gehitu beharko dira.

1.– Natura-ondarea babesteko neurriak.

Proiektuak kontuan izan beharko ditu Zadorraren sistemako urtegiak ES2110011 Kontserbazio Bereziko Ereku izendatzen duen ekainaren 30eko 120/2015 Dekretuan jasotako zehaztapenak.

Obrak Arabako Foru Aldundiaren flora eta fauna basatiko espazio babestuak kudeatzeko zerbitzu arduradunen onespina izan beharko du; hala badagokio, neurri osagarriak ezarri ahaliko ditu obra exekutatzeko, dela exekutatzeko moduari dagokionez, dela garatzeko momentuari dagokionez, kontuan hartuta zein diren KBEan dauden fauna-espezieen aldi sentikorak.

Obrak eta lurzorua okupatu beharra eragiten duten eragiketa osagarriak proiektua gauzatzeko behar-beharrezkoa den gutxieneko eremuan egingo dira. Hala badagokio, beharrezkoak diren mozte-, inaste- eta eskokatze-lanak, obra-sarreraren irekierak eta kontratistaren instalazio-guneak –makineria-parkea, obra-etxetxoak, obra-materialak aldi baterako pilatzeko eremuak eta landare-lurrak eta hondakinak aldi baterako pilatzeko eremuak barne– ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izateko irizpideetan oinarrituz egingo dira, eta, zehazki, drainatze naturaleko sareari, intereseko landarediari eta balio estrategiko handiko lurzoruari eragitea saihestuko da.

Proiektua bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta igaraba (*Lutra lutra*) egon daitezkeen eremuekin bat etortzen denean, Arabako Foru Aldundiak (bi espezieentzat) eta Bizkaiko Foru Aldundiak (bisoi europarrantzat) ezartzen dituzten baldintzak bete beharko ditu.

Jarduketan eragina paira dezaketen eremu kalteberetan eta natura-balio handieneko eremuetan (baso autoktonoko masak, Batasunaren intereseko habitatak eta KBEaren eremua), ahal bada inausketak egingo dira, eta behar-beharrezkoa denean soilik moztuko dira zuhaitzak, eta, bakar-bakarrik, haien gehieneko garapenera iristen direnean linea elektrikoaren segurtasuna bermatuta ez dagoela ikusten denean. Dena dela, lehendik dagoen zuhaixka-geruza osoa mantendu beharko da.

Zein zuhaitz moztu edo lepatu erabakitzeke irizpideak Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzu teknikoekin elkarlanean adostuko dira.

Zuhaitzak botatzea edo eskokatzea beste aukerarik ez bada, motozerrak erabiliko dira horretarako, eta ez makina astunak, modu selektiboan lan egin ahal izateko. Zuhaitzak ipurditik mozteak beti era zuzenduan egingo da, gainerako landaredia autoktonoari kalterik ez eragiteko.

Lur gaineko ur-ibilguen bidegurutzetan, ibaiertzeko espezieak dauden tokietan (lizarrak, haritzak, sahatsak, etab.), lineari eragin diezaioketen goiko adarrak bakarrik inausiko dituzte. Ez da zuhaitzaren garaiera osoaren 1/3 baino gehiago inausiko. Zuhaitz aloktonoak erabat moztu daitezke; betiere, berehala tamaina txikiko edo hazkunde moteleko espezieak landatzen badira (sahatsak, hurritzak, haritzak), eta mozketa neguan egiten bada, ibilguetan eragin txikiagoa izateko.

Eremuak kalteberak izanez gero (Batasunaren intereseko habitatak eta baso autoktonoko masak), zuinketa-fasean eta zuhaitzak botatzen direnean, botanikan aditua den norbaitek egon beharko du mozketan/inausketan bertan, obra-zuzendaritzari edo obra-arduradunari aholkuak ematen.

Obrak egin behar diren lekuetara sartzeko, lehendik dauden bideak erabiliko dira, ahal den neurrian, edo, halakorik ezean, lehendik dagoen korridorea. Aurreko apartatuetan aipatutako eremu kalteberetan sarbideak irekitzea saihestuko da.

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostenaren arabera, moztu behar diren baso autoktonoko azalerak 1:2 ratioan konpentsatu beharko dira (kaltetua: lehengoratu). Konpentsazio-neurri hori lehengoratze-proiektu batean zehaztu beharko da, eta honako hauek identifikatu beharko dira: lehengoratu behar diren eremuak, erabili behar diren espezieak, landaketa-esparruak, berme-aldia, aurrekontua, etab.

Lehengoratze-lan horiek iraun bitartean, ekintzak gauzatuko dira landare inbaditzaileak zabaltea eragozteko –hala nola, *Cortaderia selloana*, *Robinia pseudoacacia*, *Fallopia japonica*, *Buddleja davidii*, *Arundo donax* eta abar–. Ildo horretan, bereziki kontrolatuko da landare-estalkia lehengoratze lurren jatorria, eta ez da erabiliko aipatutako espezieek kutsatu ahal izan duten lurrik.

Era berean, eta ahal den guztietan, espezie inbaditzaile horiek errotik kenduko dira jarduketagunetik.

2.– Ura eta lurzorua babesteko neurriak.

Jabari publiko hidraulikoan eta horiekin lotutako babes-eremuetan egiten den jarduera orok arroko erakundearen alde aurreko baimena beharko du.

Horri ezertan eragotzi gabe, neurri babesle eta zuzentzaile hauek hartuko dira:

Oro har, eraikuntza-fasean, ahalik eta efluente kutsatzaile gutxien sortuko da, eta ahalik eta material xehe eta gai kutsatzaile gutxien isuriko da drainatze-sarera. Materialak ibilguetara arrastan joan daitezkeela edo isurketa zehaztugabeak gerta daitezkeela aurreikusten den eremuetan, jalkinei eusteko hesiak jarriko dira.

Hormigoi-kanaleak berariaz horretarako egokitutako guneetan garbituko dira. Ezingo da inola ere hormigoi-esnea ibilgura isuri.

Berariaz debekatuta egongo da makinak konpontzea edo makinei olioaldatzea zeregin horretarako berariaz ezarritako eremuetatik kanpo. Obrak egiten ari diren inguruan ez badago azpiegitura egokirik zeregin horietarako, berariazko eremu bat egokitu beharko da. Esparru hori mugatuta egongo da, eta zorua iragazgaiztu egin beharko da; era berean, efluenteak jasotzeko sistema bat eduki beharko du, lurzorua eta urak ez kutsatzeko.

Hidrokarburoak xurgatzeko gai den material espezifikoa eduki beharko da, istripuz isuri edo jarioren bat gertatuz gero berehala aplikatu ahal izateko.

Otxandiotik gertu dagoen uholde-arriskuko eremuan, ingurune hidrikoari ahalik eta kalte gutxien eragiteko beharrezko neurriak hartu beharko dira, eta lanak programatzerakoan kontuan hartu beharko da uholdeak izateko arriskua.

3.– Zarataren eta bibrazioen ondorioak gutxitzeko neurriak.

Lanak dirauten artean, beharrezkotzat jotzen diren jarraibide egokiak aplikatuko dira, ordutegien mugaketari, obrako makineriaren mantentze-lanei eta zarata jatorrian murrizteari dagokienez.

Zarata buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonakatze akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinaren soinu-emisioei buruz indarrean dagoen legerian ezarritako aginduetara,

eta, bereziki, eta hala badagokio, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten soinu-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan ezarritakora.

Bestalde, proiektua garatzean, obraren afektazio-eremuan sorrarazitako zaratek ez dituzte gaindituko kalitate akustikoaren helburuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoak, hargatik eragotzi gabe dekretu horretako 35 bis artikuluan aurreikusitakoa.

4.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

Proiektuaren gauzate- eta funtzionatze-faseetan zehar sortutako hondakinak Ekonomia zirkularerako Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta arategi zehatzetan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu behar da, edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz kudeatu behar dira; hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea, balorizatzeko beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne, eta, azkenik, deuseztatzea.

Hondakinak ezabatzeko, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik behar bezala justifikatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik ez dela bideragarria haiek balorizatzea.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta bildu eta biltegitzatzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Eraikitze- eta eraispén-jardueren ondorioz sortutako hondakinak eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan eta eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera kudeatuko dira.

Zaborte-gira bidali beharreko hondakinak, gainera, Hondakinak zaborte-gietan utziz ezabatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuan eta Hondakinak zaborte-gietan utziz ezabatzea eta betegarriak egikaritzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera ere kudeatuko dira.

Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, duten tipologia dela-eta isurketaren baten ondorioz nahastuz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete. Orobat, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan hondakinak biltegitzateari, nahasteari, ontziratzeari eta etiketatzeari buruz ezarritako betebeharrak bete beharko dira, eta itxita egongo dira kudeatzaile baimendu bati entregatu arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezen.

Aurrekoaren haritik, eremu jakin bat egokituko da hondakin arriskutsuak aldi batean pilatzeko, hala nola olio-potoak, iragazkiak, olioak, pinturak, etab. Hala, hondakin geldoak biltzeko berriazko edukiontziak jarriko dira, hondakin arriskutsuen gunetatik berezita. Hondakinak biltzeko edukiontziak edo ontziak era argian, irakurgarri eta ezabaezinean etiketatu beharko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Apirilaren 8ko 7/2022 legearen 29. artikuluari eta Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraikiz kudeatuko da sortzen den olio erabilia. Olio erabiliak, kudeatzaile baimendu bati eman arte, estalpean biltegitzatzeko dira behar

bezala etiketatutako depositu estankoetan; zoru iragazgaitz baten gainean egon beharko dira, kubo edo ihes eta isuri posibleei eusteko sistemen barruan.

Araudi hori betetzea errazagoa izan dadin, lanen ondorioz sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak prestatu beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistemok, eta haien ardua izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereziki, erregai eta produktuak biltegitratzean, ez dira inola ere efluente kontrolatu gabeak sortuko makinaren mantentze-lanak egitearen edo hondakinak erretzearen ondorioz.

5.– Lurzoruaren kalitatea aurreikusitako erabilerekin bateragarria dela bermatzeko neurriak.

Hala ere, obrek dirauten bitartean lurra kutsatzen duten jarduerak edo instalazioak izan dituen beste lekurik aurkitzen bada, edo lurzoru kutsatzen duten gaien zantzu argirik bada, kasu horietarako ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoa beteko da.

6.– Atmosfera ahalik eta gutxien kutsatzeko eta ahalik eta hauts gutxien aireratzeko neurriak.

Lanak dirauten artean, ibilgailuak iragan ondoko garbiketa-lanak zorrotz kontrolatuko dira obrek eraginpean hartutako ingurunean eta obretara sartzeko guneetan. Ureztapen-sistema bat edukiko da, aldi baterako estali gabe dauden pista eta eremuetarako eta ibilgailuak pasatzean material partikulatua aireratu daitekeen kasuetarako. Gainera, lehorraldietan, hautsa duten lur- eta material-pilaketak ureztatuko dira.

7.– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako txostenaren arabera, 1219 euskarri berria 79. zenbakidun Arroko Sola mendiko fabrika babesteko proposatutako interes arkeologikoko eremuaren mugaketaren barruan dago. Zimenduak eta zapatak jartzeko lur-mugimenduak egongo direnez, prebentzio-neurrien eta neurri zuzentzaileen artean sartu beharko da Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65. artikulua betetzea. Artikulu horrek, gutxienez, alde aurretik azterketa arkeologiko bat egitea eskatzen du, eta, horren bidez, Arabako Foru Aldundiak erabaki beharko du proiektu arkeologiko bat egin behar ote den.

Kontuan hartuta gainerako euskarri berrien zimenduak jartzeko indusketak egitean lur-mugimenduak egongo direla, jarraipen eta kontrol arkeologikoa egitea gomendatzen da.

Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legean xedatutakoa betez, lurra erazteko obretan arkeologia-izaerako bestelako aztarnarik aurkituz gero, berehala jakinaraziko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzari edo Arabako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzari, eta azken horiek zehaztuko dute zer neurri hartu behar diren.

8.– Garbiketa eta obren akabera.

Obra bukatu ondoren, garbiketa-kanpaina zorrotz bat egingo da; proiektuak ukitutako eremua inolako obra-hondakinik gabe utzi beharko da, eta aldi baterako instalazio guztiak desaginda.

9.– Ingurumen-aholkularitza.

Obra amaitu arte eta horren berme-aldian zehar, obra-zuzendaritzak ingurumenaren eta neurri babesle zein zuzentzaileen inguruan kualifikatutako aholkularitza izan beharko du. Baldintza-agiariak gai horiei buruz esleitzen dizkion funtzioen alorrean obra-zuzendaritzak hartu behar dituen erabakiek, alde aurretik, aholkularitza horrek egindako txostena izan beharko dute.

Ingurumen-aholkularitzak, gainera, jardunbide egokien kontrola egingo du obra gauzatzean; besteak beste, proiektuko ekintzen eragina egiaztatuko du, bereziki honako hauei dagokienez: makinaren mugimenduak, hautsa eta zarata sortzea, hondakinak kudeatzea eta natura-ondarea babestea.

Hirugarrena.— Sustatzaileak proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuan aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoaren arabera gauzatuko da ingurumenaren jarraipena egiteko programa, eta ondoren zehaztuko diren beste kontrol hauek ere erantsi behar zaizkio.

Programa hori obra kontratatzeke baldintza-agirian sartuta egon behar da, eta bete ahal izatea bermatuko duen aurrekontuaz hornituko da.

1.— Gorabeheren erregistroa.

Obra egin ahala sortutako gorabeheren erregistroa egin beharko da, bai eta neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsaziokoak zenbateraino bete diren jasotzeko erregistroa ere. Proiektua exekutatzeko aldaketa puntualak egin badira, xehetasunez dokumentatu beharko dira. Ingurumenean duten eraginaren ikuspegitik justifikatu behar dira aipatutako aldaketa horiek. Horri dagokionez, obretan sortutako hondakinen jarraipenari buruzko txostena jasoko da, eta hondakin horien kontrolerako, jarraipenerako eta egokitzapenerako agiriak erantsiko dituzte gainera, indarrean dagoen legeriari jarraituz.

2.— Lanek okupatzen dituzten mugak kontrolatzea.

Egiaztatuko da lanen eremua proiektuko aurreikuspenekin bat datorrela, aurreikusitako azalera baino eremu handiagoa hartu gabe.

3.— Lehengoratzearen arrakasta kontrolatzea.

Obra amaitu ondoko bi urteetan, aldizkako jarraipena egingo da, ikusteko zenbateraino lortu den proiektuak eragindako eremuak lehengoratzea.

Laugarrena.— Lehenengo puntuan ezarritako baldintzen arabera, eta betiere ebazpen honetan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak hartzen badira, bai eta sustatzaileak planteatutakoak ere —aurrekoen aurkakoak ez badira—, ez da aurreikusten ingurumenean eragin negatibo esanguratsurik sortuko denik proiektua gauzatzearen ondorioz. Hori dela-eta, ez da beharrezkotzat jotzen «Gamarra-Villarreal 1» 30 kV-ko linea eta «Gamarra-Villarreal 2» linea berria 1215 euskarriaren (Araba) eta 4659 TAE Otxandio (Bizkaia) transformazio-azpiestazio murriztailearen artean berritzeko proiektuak (i-DE, Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresak sustatu) ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazioa egitea.

Bosgarrena.— Ebazpen honen edukia Arabako Industria Lurralde Ordezkaritzari jakinaraztea.

Seigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Zazpigarrena.— Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 79.5 artikulua ezarritakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren txosten honek indarraldia galduko du, eta berezko dituen efektuak sortzeari utziko dio, baldin eta aipatutako proiektua gauzatzen ez bada Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta lau urteko gehieneko epean. Kasu horretan, sustatzaileak berriro hasi beharko du proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 5a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,
JAVIER AGIRRE ORCAJO.